

Hurrengo epea izanen da 2023ko irailetik gaur arte bazkide egin zaretenok autokontsumoan parte hartzeko eskaera egin dezazuen. Izandako bileretan esan dugun moduan, autokontsumoan parte hartzeko prozesuak bi urrats ditu. Lehendabizikoa elkarteko bazkide elkartua egitea da eta bigarrena bazkide autokontsumitzailea eta erabiltzailea egitea . Gauzak honela orain da bigarren urrats hau emateko momentua.

Autokontsumoan parte hartzeko eskaera egiteko epea: **Otsailaren 1etik Otsailaren 15era eta [kemendisocios@gmail.com](mailto:kemendisocios@gmail.com) helbidera bidalita**. Dokumentazioa eskuz emateko egunak Otsailak 1, 8 eta 15 arratsaldeko 18,30etatik 19,30etara izango dira , Mendillorriko Civivoxen.

Dokumentazioa:

- **Autokontsumoan sartzeko inprimakia osatuta**. Email honekin inprimakia bidaltzen dizuegu. Zuen ordenagailuan deskargatu, eskatzen den informazioa bete eta gaineko informazioarekin bidali
- Azken **argindarraren fakturaren** kopia
- Elkartearen bakuko kontura **150 €ko egindako transferentziaren** agiriaren kopia. Gure bankuko kontua hau da: Caja Laboral Popular : ES2030350218102180025839
- Elkarteari zure ordezkapena ematen diozun **agiria beteta eta sinatuta**. Honekin batera bidaltzen dizuegu.

Zuek ulertuko duzueenez, guretzat lan handia da dokumentazio guztia kudeatzea, horregatik eskertuko genizueke eskaera egiterakoan eskatutako **dokumentazio guztia batera bidaltzea**, eskatutako datu guztiak eman eta email bakar batean bidaltzea. Azken egun hauetan zuetariko batzuk autokontsumoan parte hartzeko inprimakia bidali diguzue, baina orain gure lana errazteko asmoz berriro eta gaineko dokumentazioarekin bidal diezaguzuen eskertuko dizuegu. Bestelaz guk denbora asko eman beharko genuke email horiek bilatzen eta behar den lekuan gorde eta abar.